

ERRUKIBAKO MAITASUNA?!

1

Munduan diran gauza danetan
ederrena maitasuna,
danakaz ere ezin da bete
maitasunaren hutsuna.

2

Gizakia da maitatua ta
maitatuteko egina,
bat edo beste falta jakona
da gizaki erdikina.

3

Gizakia da akats ta guzti
izaki errukarria,
errukia da hartu ta emon
maitasun ezaugarria.

4

Onenean be sarri daukagu
alkar parkatzeko zorra,
"Aita Gurea" ezin dau esan
ez bada errukiorra.

5

Maitasuna han, maitasuna hor
gaur maitasuna da dana,
zer maitasun da batak besteaz
errukirik ez daukana.

6

Justizia ta eskubideak
bietan zein da nagusi?
Hor errukia sartzen ez bada,
zer datorren zeuk ikusi.

7

Munduak ez dau ezer bardinik
amaren samurtasuna,
errukia dau bere izena
Jainkoaren nortasunak.

8

Gaurko munduak burua argi
baina bihotza motela,
hau gehiago da, etxea barik,
sutondo bako hotela.

9

Gu bakotxagan nahastuten dira
santua eta bihurria,
badaezpada, zabala emon
errukiari neurria.

10

Emon deiogun ahal dan bestean
errukiari lekua,
justizi hutsez ez dau inortxok
irabaziko zerua.

A. Mafrtzel